

HAMABOSTEKARIA 150. zenbakia 98ko abenduak 29

GOIERRITARRA



Urtero agintzen
duzuna egi
bilakatu dadin

Aurten
BAL

SEUR

☎ 902 10 10 10 ☎

Fakturazio lekua:
AUTOETXE C.B.

Salbatore auzoa

10. poligonoa, 18. pabiloia
BEASAIN

ORDUTEGIA: 9:00etatik 13:00 etara
15:00etatik 18:45era

Eskaintza:


*iragarki hau eramanda
5 kilorarte dohainik
Gipuzkoa barruan.*

Martxoaren 15erarteko balioa du eskaintzak.

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
baberstea gaudela*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: (943) 88 96 12
Faxa: (943) 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Maider Azurmendi, Joseba Etxe-
berria, Saroi Jauregi, Iñaki Gu-
rrutxaga, Urdaneta ikastetxea,
Xabier Mendiguren eta Angela
San Juan.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.400 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN

GOIERRITARRA
ALDIZKARIAREN ALDEKO ZOZKETA

SARIA:
300.000 pezetako bidaia
(1999ko irailaren 30erarte egiteko)

Zozketa notario aurrean egingo da, 1998ko abenduaren 21ean.
Zenbaki saritua **GOIERRITARRA** aldizkarian argitaratuko da.
Saria jasotzeko epea: 1999-1-31 arte. ☎ 943 88 96 12
Saria derrigorrez bidaia egiten gastatu behar da.

03.486 Zk.

Laguntza: 200 pezeta

UROLA Bidaiak

K. Nagusia, 36
☎ 943 16 15 46
☎ 943 16 15 47
BEASAIN

3.486

GOIERRITARRA aldizkariak egin duen 300.000 peze-
tako bidaiaaren zozketako zenbaki saritua, 3.486 izan da.
Santo Tomas egunean, abenduaren 21ean, Ordiziako
Notarioan egin zen zozketa.

Bigarren aldiz egin du Goierriko hamabostekariak
300.000 pezetako bidaiaaren zozketa, diru piska bat es-
kuratzearen. Beasaingo Urola Bidaiak-en bitartez egin-
go da bidaia. Zortea izan duenak, 1999ko irailaren 30a
baino lehen egin beharko du bidaia, nahi duen lekura eta
nahi adina lagunekin. Iaz Arantza Arrutiri egokitu zit-
zaion eta Vietnamera joan zen.

Beraz, 3.486 zenbakia duen txarteltxo duena, jar be-
di harremanetan GOIERRITARRA aldizkariarekin. Te-
lefonoa: 943 88 96 12. Beraz, txartelak ondo begiratu
eta irabazleari, zorionak. Gainerako guztioi, eskerrik as-
ko errifak erosiz eta salduz GOIERRITARRA laguntze-
agatik. Zorionak eta Urte Berri on!

BOTA BERTSOA



Ekaitz Goikoetxea
Goierriko bertso-eskolako
ikaslea

Urte berria

← **Doinua: Mendian gora haritza** →

Laurogeita hemeretzia
urre kolorez jantzia,
oinazearen sufrimendua
goxatzen hasia,
elkartasun gutizia,
bakea ta justizia,
urte berriak lora dezala
zahararren hazia.

Espetxeen urrikala,
argi gabeko itzala,
urte berriak amets berria
damait nola-hala
legezkoa den bezala,
eskatzen dut berehala
euskal presoak Euskal Herrira
ekarri ditzala.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Indar bai, baina horrela jai

Ia hiru urtetako maila guztietako zalantza eta negoziaketaren ondoren, azkenean Indarreko lantegi berriari bidea ireki zitzaion, enpresa eta bertako langileei etorkizunerako bideragarritasun plangintza ahalbidetuz.

Bere garaian, Zamudioko Ingeletric enpresa izan zen bakarra etorkizunerako proposamen serioa egin zuena, Indarren ekoitzapena Beasainen mantendu eta gehituz, baina horretarako derrigorrezkoa ikusten zen lantegi berri bat eraikitzea. Horretarako N-1 errepedearen ondoan dagoen 'Jaro' mendia aukeratu zen. Ingeletric-ek lantegi berria eraikitzeko dirua ezin zuela ipini esan zuenez, finanziaio egitasmo bat ipintzen da martxan, non gaur egun lantegia dagoen lur sailetan 300 etxebizitzaren eraikuntzarekin Indar berria eraikitzeko dirua atera nahi den. Egitasmo honen arabera, oraingo Indar-en orubean ia 150 etxebizitza eraikiko ziren eta oraingo baratzetan (Igartzako Jauregiaren inguruan eta piszinetaraino) beste 150 eta zehaztu gabeko kirol ingurune bat.

Hitzarmen honen onespina

pasa den arazoaren 19an Udalbatza berezian lortu zen, soilik Herri Batasuna aurka agertu zelarik. Gu ados gaude Indar enpresaren etorkizuna lantzerakoan, ados egon gaitzeko egungo lantegian etxebizitzak eraikitzearekin (beti ere babes ofizialekoak izatekotan), baina ez gaude inola ere ados Igartza Jauregi ondoan egin behar diren beste 150 etxebizitzekin, pentsatzen dugulako ingurune hori Beasaingo herritarroei gertatzen zaigun aisialdi, kirol gune... —Indarreko baratzak— apropos bakarra dela (hiri erdian zegoena, nola ez, etxebizitzetaz bete ostean).

Gobernuan dauden taldeek (PNV, EA, PSOE) esaten dute hartu berri den erabakia legealdiko, eta behar bada azken urtetako, garrantzitsuena izan dela, Indar Beasainen geratzea lortzen delako eta herri irteerasarrera bati hirigintza ikuspegi aldetik lotura egokia ematen zaiolako. Ba guk uste dugu garrantzitsuena ez dela Indar Beasainen geratzea (ahaztu gabe erakunde desberdinetatik jasotako laguntzak ia 4.000 milioietakoak izan direla), Goierri geratzea eta bere etorkizuna ziurtatzea baizik, eta horretarako hartu den erabakia —300 etxebizitza eraikitzea— Beasaingo herritarroei izuga-

Zorionak eta Urte Berri on!

Zerutar jaiak dira gaude eguberri ospatu ditzagula poz eta irriz Jesus aurtxoa gurtuz alkaturik berriz Zorionak abestuz biotz da eztarri pakezko egarri presok euskal herriz sendiko pozgarri Belengo eskariz denok gora Jesus ongi etorri.

Zoriondu gaitzala zerutar aurtxuak aundi mallan daudenak da beartxuak argitu gaitzala zure izartxuak ikusmen oneko ta da berdin itxuak Belengo altxuak jargaitzen txintxuak denok berdintxuak kristau sutxuak eguberri on da jai zorionsuak.

Patxi Telleria (Lazkao)

rizko kaltea egiten digula gure bizitza-kalitatean. Guretzat, herritarren interesetarako hobe da dirua hipotekatzea eta ez herriak dituen lur zoruak, azken hauek gure herrian zoritarrez ia agortu dituztelako. Gure planteamenduak auzi honetako bi aldeak kontutan hartzen ditu: Indar eta bertako langileak alde batetik eta, Beasaingo herritar ororen interesak. Beasaingo arazo nagusienetako bat etxebizitzarena da, eta jakinda ia 1.000 hutsik daudela, Gobernu taldearen politika beti izan da eraikitzen jarraitzea. Horrela, epe laburrean beste 2.000 etxebizitza eraikitzea aurrikusten dute. Norentzat?... Badirudi, eta beti berdi-

na defendatu dute, egunen batean Goierriko erdigunea izango dela Beasain eta jasoko duen biztanle igoera horretarako etxebizitza horiek behar direla. Ba azkeneko urtetako herritar-zentsoa ikusiz gero garbi ikusten hori ez dela horrela eta biztanle kopurua aspaldi egonkortasun batetara iritsi dela.

Beraz, Indarri irtenbide egokia eman behar zaio, bai, baina ez gure lur zoru batirako hipotekatuz. Guk uste dugu Herria egiten dela bertan bizi, zergak ordaindu, direnei bizitzeko baldintza hoberenak eman ez edo eskainiz, eta hau ez da lortzen etxebizitzak eraikiz.

Joxe Arotzena Irastortza
Beasaingo HBko zinegotzia

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04

BEASAIN



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altxarigintza industrial
- Bulego altxariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordura eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

TXANDAKA

Beasaingo baserriak

Izenburua ikuste hutsarekin harritu egingo da bat baino gehiago; izan ere, Beasain kalea besterik ez da bertako nahiz kanpoko askorentzat. Hala ere, joan den udazkenean argazki-erakusketa bat izan genuen, herriko baserriak erakusten zituen: ia 150! Kaskoan bertan daudenak (zeudenak) ez ezik, inguruko auzoetakoak (Altamira, Ugartemendi, Loinatz, Antzizar, Beasainmendi) eta urrunxeagokoak (Gudugarreta, Salvatore, Arriaran, Garin, Astigarreta, Aratz-Maximienta...).

Gauza kuttuna dugu baserria kaletarrok ere, bertan baititugu gehienok sustraiak, bai familiarenak, bai gure herri eta kulturarenak. Hala eta guztiz, hiltzen ari da aspaldian baserria bizibide gisa, eta gure artean folklore bihurtzen: ederki ematen dute umeei baxeritarrez jantzita eguberrietan, baina aldi berean, egiazko baserritarra bazterturik daukagu gure gizartean, arlote moduan ikusia, miseriara kondenatua.

150 baserri zenbatu ditut lehen. Ez dakit ordea horietatik zenbat dauden hutsik, eta beste zenbat galduko diren ondorengo urteetan Abiadura Handiko Trena egiten badute azkenean. Esnea-eta pagatzen diren prezioetan ez da harritzekoa. Baina guk kalean merke nahi...

Azeria edo basurdea ez: baserritarra da egiazko galtzorian dagoen espeziea. Eta legerik ez, hura behar bezala babestuko duenik.

Xabier Mendiquiren Elizegi



Zer egingo zenuke loterian diru asko egokituz gero?



Iker Agirre
25 urte, langilea
lazkaotarra

Lana utzi eta bidaiatu, mundu guztia ezagutu. Afari elegante batzuk egin ere bai. Dirua bukatzen denean, berriro lehengo martxan segi.

Erramun Amundarain
47 urte, irakaslea
itsasondarra


Artaldea erosi eta artzain joan.



Marzial Garmendia
49 urte, langilea
ordiziarra

Diru asko tokatuz gero, nire ilusioa, Ordiziako Beti-Alai pilotalekua itxia da, pilotaleku itxia egitea.

- **Beasainen, Nafarroa Etorbidean (Indarreko txalet zaharrean) azalera ezberdineko etxebizitzak eraikitzen ari gara, terraza handiarekin**



- **Lokal komertzialak eta garajeak**

Urte Berri on!

GOI-ETXE S.A.

Filipineta, 13 - behea ☎ 943 88 49 50 ORDIZIA



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zrionak eta Urte Berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) Tfnua.: 943 16 11 05 BEASAIN

MUSIKA

BEASAIN:

Urtarrilak 1, Benito Lertxundi eta Antton Valverde, Bernedorenko karpan, 22:00etan. Beasaingo Ikastolak antolatuta. Sarre-
ra: 1.500 pezeta.

ORDIZIA:

Abenduak 31, Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz Beti Argi banda eta Laguntasuna Errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 3, Gozategi taldearen kontzertua, Beti Alai pilotalekuan, 19:00etan.

Urtarrilak 7, Oroith abesbatza eta Gipuzkoako Kamara abesbatzak eskainitako kontzertua, Elizan, 19:00etan.

BERTSOAK

BEASAIN:

Urtarrilak 2, 'Ehun urte berrehun bertso' bertso jaildi berezia, Beasaingo Ikastolaren Bernedorenko karpan, 22:00etan. Bertsolariak: Xabier Amuriza, Jon Lopategi, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Miren Bilbao, Iñaki Murua, Mikel Mendizabal eta Jon Sarasua. Narratzailea: Xabier Euzkitze eta Joserra Gartzia. Musikariak: Pello Ramirez, Izaro Garmendia, Juanxo Zeberio eta Edu Salvador.

BESTELAKOAK

ORDIZIA:

Abenduak 29, 'Aiton-amon eta bere bilon eguna'

Txotxongilo taldeak 'Herrensuge' lana eskainiko du, Jubilatuen Egoitzan, 18:00etan.

Urtarrilak 2, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoan ikuskizun berria: 'Base-
rrian', Majori kiroldegian, 17:30ean.

IKUSENTZUEZKOAK

ORDIZIA:

Abenduak 30, Iñurrategi anaiei 'Kordadako lagun galdua: Manaslu, Dhaula-

giri, Jala Peri' ikusentzunezkoa, Herri Antzokian, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Abenduaren 30era bitartean, Aterpe pintura lehiaketako lehenengo bost aukeratuen lanen erakusketa: Edurne Maritxalar, Mikel Izagirre, Agustin Caballero, Eluska Zabalo eta Mare Arrizurietaarena.

Urtarrilaren 2tik 8ra, Aterpe pintura lehiaketako lanen erakusketa. Karmele Colera, Oscar Barrera, Juan Narbarte, Modesto Ferreira, Mamen Garcia, Angelita Villalba, Mercedes Fernandez, Itziar Mendiola, Eva Lizarraga eta Carlos Sobrinorenak.



ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN


Uste Berri goriontsua denoi!



Arantxa ILEAPAINDEGIA
Urdaneta, 42 - behea
☎ 943 88 19 50 ORDIZIA



ASTI PUB
Zaldizurreta kalea
☎ 943 88 45 06 BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA
Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

ALUMINIOS



EUSKADI, S. A.
Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminio xafla normalizatuak
Makinaria
Biltegia: ☎ 943 16 11 66
Bulegoak: ☎ 943 88 93 50
Faxa: 943 16 02 91
10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:
Lanegunetan:
☎ 943 16 21 92
Larunbatetan:
10:00 - 12:00
Altzagako Udaletxean



ALTZAGA

Urtarrilaren 9tik 15era,
Aterpe pintura lehiaketako
lanan erakusketa. Arritxu
Zudaire, Iker Dorronsoro,
Agustina Prado, Olivia
Sanchez, Iñaki Eskiabel,
Francisco J. Rojo, Luis
Garcia, Teresa Suso, Anto-
nio Muñoz eta Mary Fran-
corena.

Urtarrilaren 3ra arte,
Euskal Herriko artisten
erakusketa Beasaingo Ikas-
tolak antolatutako Gabone-
tako egitarauaren barruan,
Usurbe Antzokiko erakus-
keta aretoan.

Gabonetako haur parkeak Ordizian

Haurrek nahikoa jolas
egiteko izango dute Or-
dizian, Plaza Nagusian
izango diren haur parke-
etan. Urtarrilaren 3an,
4an eta 5ean izango dira.
Goizetan 11etatik
1,30era eta arratsaldetan
4etatik 8etara.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Lokala salgai Beasainen
J.M. Iturrioz kalean. 67 m--
2--, 3 alde argitara ematen
du. Oso modu onean. 943
16 02 37 - 943 852818.

☐ Panasonic VHS bideoa
salgai. Merke eta egoera
onean. 943 88 40 96 (eguer-
di eta gauetan).

☐ Pianozko eskusoinua
salgai. Prezio interesgarria.
943 18 04 26 (gauez deitu).

☐ 11 hilabeteko pastor ale-
man arrazako txakurkumea
salgai. Oso modu onean.
943-161945 (arratsaldetan).

☐ Pastor aleman arrazako
txakurkumeak salgai. Oso
arraza onekoak dira. Gura-
soak, biak, pedigreearekin.
Xabier. 943-180264.

☐ Olivetti idaz-makina sal-

gai. Prezio onean. Ia berria.
943 882278 - 943 882047.

☐ Disko singleak erosten
ditut. 943-526577.

☐ Trabesiako eskiak sal-
gai. Egoera onean. 943
162222.

☐ 10 hilabeteko zezen li-
mousina salgai. 943
800490.

☐ Vespa zuria salgai. SS-
AV. 943 187448.

Lanak:

☐ 26 urteko Goierriko
neska euskalduna prest dago
etxeko lanak egin eta umeak
zaintzeko egunean 4 edo 5
orduz. Esperientziaduna.
943 80 00 84.

☐ Soprano profesionalak
kantuko klasek ematen ditu.

Baita italiano zko klaseak
ere. 943-766524.

Bestelakoak:

☐ Maizpide euskaltegi-
ko neska bat familia euskaldun
bat ari da bilatzen Lazkaon
edo inguruetan. Marta. As-
tean zehar 943-889231. As-
teburuan 943-610458.

☐ Edozein etxeko altzari
(sukalde, logela, egonge-
la...) bota edo behar ez badi-
tuzu, gustura hartuko geni-
tuzke. 943-881573.

Etxebizitzak:

☐ Donostiako Amaran nes-
ka bat behar da pisua osa-
tzeko. 943 45 38 94.

☐ Ordizian edo Zaldibian
pisua konpartitzeko lagun
bat behar da lehenbailehen.
919-856033.

URBITARTE sagardotegia



- Urtarrilaren 8tik aurrera
txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN

Arkupe tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Mairidireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA



X ENKEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritza

Erakusketako ☎-faksa: 943 889113 - ☎ mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25 BEASAIN

UNIBERTSITARIOAK:

- ✓ Behar duzuen laguntza
Beasainen.
- ✓ Ordutegi zabalak goizez
eta arratsalde.

IKASTEK AKADEMIA

☎ 943 160 120

Joan Iturrilalde, 5

BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak**

Dagoeneko bete da mende laurden bat gure herri kuttunean, Urdaneta Herri Ikastetxeak bere ibilbidea hasi zuenetik. Aukera ona dugu hau begirada bat atzera botatzeko eta, era berean, etorkizunerako helburu berriak zehazteko. Egunerokotasunak, askotan baloraziorako uneak murrizten dizkigu, baina adin nagusia soberan gainditu ondoren, gure egitasmoa sendotu egin dugula eta hezkuntzaren unean uneko eskakizunei erantzun diegula esan dezakegu, nahiz eta bidean zailtasun eta oztopo asko gainditu behar izan ditugun.

Urdaneta Herri Ikastetxea aintzindari izan da arlo asko eta askotan eta hasieran diru bitartekoen urritasuna ikaragarritzko borondate eta sakrifizioarekin gainditu behar izan genuen. Era honetan, jangela zerbitzua, eskola kirola, liburutegia, udalekuak, dantza taldea eta abar abian jartzea lortu genuen. Erantzun beharra zegoen, zalantzarik izan gabe. Gure ibilkerak sendo eta zuzena behar zuen izan. Gure gizartearen atal guztietan gertatzen ari ziren aldaketa ikaragarriak, erronka eta erantzunkizun berriak planteatzen zizkiguten guraso, ikasle eta irakasleoi.

Gaur egun, zorionez, gure erakunde (Eusko Jaurlaritzak, Udala) laguntza badugu, baina lehengo borondate eta sakrifizio gogorari eusten diogu, eta honi esker gure ikastetxeak arlo askotan aintzindari izaten jarraitzen du: irratia, telebista, prentsa, eskolaz kanpoko ekitaldiak...



Ordiziako Urdaneta Ikastetxe Publikoa: 25 urte

Eta ezin dugu inola ahaztu, eskola euskaldundu nahian egindako ahalegina; 'D' ereduaren aldeko gure apustu sendo eta argia, gaur egun errealitate miresgarri bihurtu dena: irakaskuntza euskaldun oso-oso, gure herriaren ezaugarri nagusia, hizkuntza, behar bezala aintzat hartzen duena, baina era berean gaztelaniaren ezagutza egokia bermatzen duena. Arlo honetan, irakasleen ahalegina ikaragarria izan da, eta euskaraz irakasteko behar den titulazioa lortu ondoren, beraien ezagutza hobetu eta sakontzeko ikastaro berezietan parte hartzen jarraitzen dute. Eta ezin ahaztu gurasoen papera ere, euskararen transmisioan eta gelaz kanpoko erabilpenean hain garrantzitsua dena: Ikasturte honetan berrogei gurasok, Ordiziako 'Goiztiri' AEK-k emandako euskara ikastaroa jaso dute eta bide honetatik jarraitzeko asmo sendoa daukate.

Ingelesa izan zen gure hurrengo erronka. Hizkuntza honen garrantziaz ohartuta, gure kabuz hasi ginen ingelesa irakasten Urdaneta Ikastetxean. Eta ildo honetatik, datorren kurtsuan in-

darrean jarriko dugun egitasmoari esker, DBH bukatzerakoan gure ikasleek lortuko duten mailarekin, ingelesa nagusi den lan, zientzia, komunikazioa eta unibertsitatearen munduan, inolako arazorik gabe aritu ahal izango dira.

Gure lana, dena den, ez da geratzen eskolako paretan artean. Ugariak dira herriko erakunde ezberdinekin burutzen ditugun ekintzak eta gero eta sakonagoa erakunde hauekiko elkarlana: Udaleko euskara azpibatzaordea eta kultura batzaordea, Kultur Etxea, 'Majori' Kiroldegia, Musika Eskola, AEK, 'Hitzaro' Euskara Elkartea...

Eta bide luze hau egin ondoren, etorkizunerako erronkak ere, ez zaizkigu falta: 'Oianguren' Institutuarekiko batzearen sendotze eta sakontzea, Ordiziako eskola publiko oso-oso ahalbidetu duena (2-18 urte bitartean), eskolaurreko eraikinaren handitzea, DBHrako eraikin berria... XXI. mendera goaz eskola herritar eta euskaldunaren islada bilakaturik, honek esan nahi duen guztiarekin: aniztasunari begirunea eta, gizaki ororen balorazioa.

Harro gaude 25 urte luze hauetan gure helburuak, ikasleen formakuntza eta berauen giza eta kulturalitate mailaren hobekuntza eskuartzen lagundu diguten guztiez. Guraso elkartearen lana ere goraipatu nahi dugu, hala nola guraso guztien konfidantza, haien seme-alaben hezi-

keta gure eskuetan jartzekoan gure egitasmoa gauzatzea ahalbidetu dutelako. Eta inola ere ezin ditugu gure ikasleak ahaztu. Beraiek izan baitira ikastetxearen lehengaia; eta lehen mailako lehengaia izan dugula esan dezakegu. Gure asmoa, eza gutza edukinak emateaz gain, giza eta etika baloreak erakustea izan da, gero eta lehiakorragoa den inguruan era egokian murgildu ahal izateko, ikasle bakoitzak duen ahalmen guztiei etekina ateraz eta beraien ahalbiak errespetatuz.

Eta ez dugu bukatu nahi, gaur egun gure artean ez dauden kideak gogora ekarri eta Ordiziako herritarrek eskaini diguten konfidantza eskertu gabe. Harro esan dezakegu ordiziarren laguntza eta konfidantza gero eta handiagoa dela. Izan dezakegun saririk handiena, ikasle izandakoen seme-alaben ondoan aurpegi berriak ere ikustea da, gure Ikastetxea lehendik ezagutzen ez zutenak baina gure ereduak aukeratu dutenak eta konfidantza honi kalitatezko irakaskuntza egitasmo batekin erantzutea, gure erronkarik handiena.

Urdaneta Ikastetxea

ERREZETA



Aritza Uriarte
Amebi sagardotegia
Lazkao

INTXAUR SALTSA

6 lagunentzako osagaiak: litro erdi esnegain likido, litro erdi esne, 150 gramo intxaur (azala kenduta), 125 gramo azukre, kanela zotza eta limoi azala.

Ehogailuan intxaurrekin ondo ehotu. Esnea kanela-ekin eta limoi azalarekin egosi. Iragazkitik pasatu.

Ondoren esne hau esnegainarekin eta intxaurrekin egosten jarri eta 5 minutuan irakiten eduki. Azukrea gaineratu eta sutan minutu bat gehiagoz eduki. Sutatik kendu eta irabiagailuan pasatu. Banakako katilueta jarri.



Angela San Juan
Farma-etxe

Arazo baskularrak arterietan eta zainetan gerta litezke. **Arteriek**, bihotzetik gure gorputzeko atal ezberdinetara odola eramaten dute eta beraien aldaketen ondorioz, enboliak, tronbosiak, bihotz-aldaketak... sortzen dira, heriotz-tasaren arrazoirik garrantzitsuenak dira. **Zainek** gorputzeko atal desberdinetatik bihotzera odola eramaten dute, hau da, grabitate indarraren aurka joan behar du. Beraien paretak arteriena baino finagoak direnez, errazago distenditzen dira, bertan odola bil daiteke eta ondorioz ohiko barizeak sortzen dira.

AHOLKUA

Aldaketa baskularrak (I)

Sintoma nagusiak:

- **Edema**, orkatila handitua eta ohiko pisutasuna.
- **Azkurak**, odolaren presioaren aldaketen ondorioz irtetzen diren sustantzia toxikoengatik sortzen dira.
- Azalaren **elastizitatearen gutxitzea** eta pigmentazioaren ugaritzea, sustantzia toxiko hauek azalaren egituraren sortzen duten minagatik.
- Azken ondorioak, **ulzerak** eta **azalaren puskatzeak** dira, odolaren presioa handitzen delako.

Arrisku faktoreak:

- Mugikortasun eza. Denbora asko eserita edo zutik egoten diren egoerak. Oheratutako pertsonak. Hezgarzinean edo autoan bidaia luzeak egiten dituztenak hankak inklinatuta. Ordu luzeak telebista ikusten egotea. Gorputzeko atal baten mugikortasun eza (igeltsoak).



- **Kontaktua** duen kirola edo ekintzak egitea, abdominaletako presioa eragiten baitute.
- **Gizentasuna**. Zuzenean ez, baina pisu gehiegiak ez mugitzera darama. Tronbosien eta abarren eragile zuzena ere bada.
- **Arropa**. Arropa estuegia eta takoi altuegiak.
- **Haurdunaldi** gogorak.
- **Beroa**. Zainen dilatazioa eragiten duenez, odola pilatzen baita bertan.
- **Oin lauak**.
- **Estrogenoak**. Emakume izateak berak dakar estrogeno gehiago izatea. Antisorgailuak hartzen dituztenek eta erretzaileek arrisku handiagoa daukate.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



☎ 943 88 55 00

ORDIZIA

IBAI-ONDO

ZURGINTZA
ALTZARIAK

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g

☎ 943 880543

BEASAIN



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 943 16 20 16

ORDIZIA

Ikasle, guraso eta goierritar guztioi
URTE BERRI ON!
opa dizuegu

9: Goierriko Gurutze Gorriak egokitutako ibilgailuak aurkeztu zituen Beasainen. Goierriko erakunde, empresa, komertzio eta partikularrek finantzatu zituzten.

11: Gabonei amaiera emateko **Astotxo festa** izan zen Lazkaon. 80.000 olata saldu ziren.

12: Jose Inazio Iruretagoiena Zarauzko PPko zinegotziaren hilketa salatzeke udaletxe aurretan **bilkura isilak** egin ziren. ETak hil zuen Iruretagoiena.

18: Ezkio-Itsason **Gipuzkoako kros txapelketa** jokatu zen. Amaia Insausti oleberritarra 3.a izan zen. Gizonezkoetan Santi Gonzalez beasaindarrak 5. egin zuen.



Mutiloa, Segura, Zerain, Zegama eta Partzoneriako nekazariak osatzen dute.

20: Jorge Oteizaren eskultura jarri zen Ordiziako Goen plazan. Nikolas Lekuona eta Jose Sarriegi ordiziar pintoreak eta Maria Dolores Gonzalez Katarain (ETak 1986an hila) omen-du nahi izan ditu obra honekin Oteizak. Martxoan inauguratu zen ofizialki.

25: Idiazabalgo XVIII. herri krosa jokatu zen. Irabazleak, maila desberdine-

tan, hauek izan ziren: Al-mudena Ngema, Ander Viguri, Amaia Azurmendi, Eneko Agirrezabal, Amaia Arbillaga, Ladislao Unanue, Alazne Ruiz, Fernando Nogales, Sara Rodriguez, Manu Hurtado, Mari Jose Gil eta Angel Turrillas izan ziren.

28: Idiazabalgo Muñok saldutako **Onceko kupoiak milioiak** ekarri zituen Goie-

Zeraingo **Zerran zerrategia** inauguratu zen. Zerrategi honen inguruan Zerran elkartea sortu zen Goimenen (Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartea) ekimenez. Idiazabal,

rrira, 25 milioi jasotakoak ere izan ziren.

30: Idiazabalgo San Blas jaiak hasi ziren. Otsailaren 4ra arte iraun zuten.

30: 4. aldiz jarraian, '**An-tzerki garaia**' zikloa jarri zuten martxan Ordizia eta Beasaingo udalek. Apirilaren 24ra arte iraun zuen.

30: Beasaingo Udaleko Ongizate sailak antolatuta II. jardunaldiak izan ziren 'Pobreziaren aurkako planaren erabiltzaileak eta etxebizitza arazoa' izenburuean.

31: Idiazabalen ustez er-tzain baten etxea erasotzeagatik **3 atxilotaketa** izan ziren: Idoia eta Ekain Mendi-zabal eta Idoia Garmendia ordiziarrek. Kartzelan sartu zituzten.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-AK eta abar

× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Zorionak eta Urte Berri on!

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

Argiaren inguruan elkarrekin lan egiten dugu.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

1: Beasaingo Gure eskue-
tan eta Gesto por la paz tal-
deek antolatutako, 'Bakea da
bidea' lemapean bakearen
eguna izan zen Beasainen.
Gandhi hil zutela 50 urte
bete ziren.

4: Santa Ageda egun bez-
peran talde ugari kantari ibi-
li zen herrietan.

5: Beasainen, Loinazko
San Martin egunean, **Odol-
kiaren kofradiak** XIII.
Biltzar Nagusia ospatu
zuen.

5: Beasain futbol taldeak
Realaren aurkako adiski-
dantzazko partidua jokatu
zuen.

5etik 8ra: Beasaingo
Matximenta auzoko jaiak
izan ziren.

7: VIII. Beasain idaz-
lehiaketako sari-banaketa
egin zen Beasaingo udale-
txean.

9: Itsasondoko Intxau-
rondo etxea erre zen.
Ganbaran sortu omen zen
sua.



14: Adur Ezenarro or-
diziarak irabazi
zuen Bergarako
Amodiozko gutunen
saria, 'Serora' lana-
rekin. 1847ko Laz-
kaoko Maria moja-
ren eta Joxe Inazio
apaizaren arteko "ai-
tortza kontuak" bildu
zituen Ezenarrok.

10: Zerainen 19 urteko
Iñaki Zabalo, Gaintzan 20
urteko Iñaki Garmendia eta
Araman 17 urteko J.A. **atxi-
lotu zituzten**. Aramarra
kartzelan sartu zuten eta
gainerako biak libre gelditu
ziren. Atxiloketak salatze-
ko manifestazioa egin zen
15ean, Ordizian. Urtarrila-
ren 31n Idiazabalen eginda-
ko atxiloketen haritik etorri
ziren atxiloketa hauek.

13: Itsasondo eta Or-
maiztegiko udaletako or-
dezkariek Goiekin bildu zi-
ren, bi herri horietan trena
bidaiariak hala eskatuz gero
bakarrik gelditzeko Renfek
hartu zuen erabakiaren aur-
ka azaltzeko. Azkenean ber-
tan behera utzi zuen Renfek
bere erabakia.

14: Ordizian **kalderero-
en jaia** berreskuratu zuten.
Azken aldiz 1934. urtean
etorri omen ziren Hungaria-
ko kaldereroak Ordiziara.

18: Zaldibiako 17 urteko
M.L. **atxilotu zuten**. Libre
gelditu zen. Atxiloketa hau
ere, Idiazabalen urtarrilaren
31n izandako atxiloketen
ondorioa izan zen.

20: I. Igartza Literatur
Sorkuntzako beka aurkez-
tu zen. Idazle gazteei zuzen-
dutako beka da, eta liburua
idazteko proiektua saritzeko
asmoz sortu zen.

22: 23 urteko Iñaki Osi-
nalde eta 16 urteko Etxahun
Gorrotxategi gabiriarrak
auto istripuz hil ziren Bea-
sainen.

24: Beasaingo Udalak
bigarren hitzarmena sinatu
zuen Renferekin, lurralde sal-
du eta gune publiko irekia
sortzeko. Pergolak zabaltze-
ko proiektua aurkeztu zu-
ten.



25: Itsasondoko Udalak
Itsasondon Oria ibaiaren bi-
deraketa lanak berehala egi-
ten hasteko eskatu zuen
prentsaurrekoan.

27: Beasaingo Alkarta-
suna Lizeoko kirol instala-
kuntza berriak inauguratu
zituzten.

28: 'Etxegarateren bi-
koizketa orain, atzerapen
gehiagorik ez' lemapean
bilkura egin zuen HBk
Etxegarate gainean.

MUGUJAR
Argiztapenak



URTE BERRI ON!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

☎ 943 88 72 76



- ✓ Ileapaindegia
- ✓ Edergintza
- ✓ Solariuma

ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 843 88 02 97

BEASAIN

6: Legorretako Kutxaren kutxazain automatikoa era-sotu zuten.

8: Emakumearen eguna-ren inguruan ekitaldi ugari antolatu ziren Goierriin.

8: Autobus istripua izan zen Ordizian. Zaldibiatik zetorrela San Joango sarre-ratik tunelaren goia jo zuen. 55 lagun zihoazen autobu-sean, baina ez zen garran-tiziko zauriturik izan.

10: J. A. aramarra libre gelditu zen, fidantza or-dainduta.

14: Abenduaren 15ean Ezkio-Itsason erretako Agerre-Haundi baserriaren aldeko bertso-jaialdia izan zen Urretxun. Beste hainbat ekitaldi ere egin ziren dirua biltzeko.

15: 18 urteko Aitor Asegi-nolaza idiazabalarra **atxi-lotu zuten**. Urtarrilaren 31n Idiazabalen izandako atxi-loketen ondorioa izan zen.

15: Ordiziako Gazte Asanbladak antolatuta **goi-tibehera txapelketa** jokatu zen.

17: Poliziak **18 magrebiar atxilotu** zituen Etxegaraten, hainbat egunetan ezkutatuta egon ondoren.

18tik 21era: Idiazabal, Segura eta Zegamako Ja-rraiko gazteek antolatuta **2. Gazte Topagunea** izan zen.

21: ETako Andaluzia ko-mandako ustezko kidea, Mikel Azurmendi Peñagari-kano arriarandarra, **atxilotu zuten** Sevillan.



Segurako Elorri elkarteak eta Urruñako Hazia elkarteak antola-tuta **III. Iparra-Hegoa** izan zen Seguran, Iparral-dearen eta Hego-aldearen arteko ezagutza handia-gotzeko asmoz.

22: Txirrinduz zihoala auto batek harrapatuta Ze-gamako 31 urteko **Javier Berasategi** hil zen.

23: Beasaingo gazte tal-deek antolatutako bigarren '**Udaberri Gaztea**' izan zen, apirilaren 5era bitartean.

24: Andres eta Ander **Vilariño** auto gidariak den-boraldi berria aurkeztu zu-ten Olaberriako Karting-ean.

24: Sasieta zaborte-gian '**Zuhaitz eguna**' ospatu zu-ten. Beasaingo Alkartasuna Lizeoko ikasleek zuhaitzak landatu zituzten.

28-29: Ordiziako merkatariek ('Ordizian') **II. Gala komertziala** antolatu zuten Majori kiroldegian.

30: Zegamako Plan es-trategikoa aurkeztu zen.



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta hormigoientzako gehigarriak
- Hormigoia-aren tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 943 88 9350 Faxa: 943 880688

AMONANE

Nagusia, 30
ORDIZIA

MIAMI
kafetegia

Pintxo eta bokadilloetan
aukerazabala
Ebexzarreta kalea **ORDIZIA**

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Zorionak eta Urte Berri on!

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere. 7
BEASAIN

2: 13 urte kartzelan egon ondoren, **Joxe Goikoetxea** ataundarra libre gelditu zen. Dupuytren eskuetako gaitasuna dauka Goikoetxeak.

4: Ordiziako **II. Akordeoi txapelketa** jokatu zen. Mikel Urtxegi lasartearrak irabazi zuen.

4: **Segurako bertsolariak**, Pedro Etxezarreta eta Joxe Insausti omendu zituen, Segurako Txirrindulari elkarteak.

5etik 11ra: Seguran **Aste Santuko ekitaldiak** eta prozesioak izan zituzten.

10: Idiazabalen **Kutxak duen bulegoa** erre zuten. Ondorioz Kutxa dagoen eraikineko eta ondoko etxetako bizilagunak beraien etxetatik atera behar izan zituzten. Udalak pleno berezia egin zuen 16an, erasoa salatzeke eta kaltetuei elkartzasuna adierazteko.

17: Beasaingo **Odol-emaileek egoitza** berriua inauguratu zuten.



21: **'Indibabaren Ibilbidea'** aurkeztu zen Zerainen. Tolosaldeko eta Bizkaiko Uribe-Kostako herriek hartzen dute parte ibilbide honetan eta Zerain ere gonbidatu egin zuten.

19: Zegamako **Orkatx Txiki abesbatza** Donostian ospatu zen Kantata 98an izan zen.

20: **Xabier Mendiguren Elizegi** beasaindarrak 'Gure barrio 1975' eta 'Kanibalaren kaiolan' liburuak kale-ratu zituen.

20: **Laukiak** jaio ziren Ordizian: Maria, Maite, Joseba eta Asier. Vicky Dominguez eta Joseba Maiztegiaren seme-alabak dira.

23: Lazkaoko **Maizpide euskaltegiak** 10 urte bete zituen.

23: 35 orduko lan astearen eta enplegu banaketaren aldeko **ordubeteko lanuz-**

tea egin zen ELA eta LAB sindikatuek deituta. Arratsaldean manifestazioa egin zen Beasaindik Ordiziara.

24: Egun horretatik maiatzaren 1a bitartean ospatu ziren Lazkaon **San Prointzio** jaiak.

24: **VII. Gerriko Ikerlansariketako** lan irabazleak biltzen dituzte liburuak aurkeztu ziren Lazkaon: Joxe Migel Azurmendik idatzitako 'Zegamako euskara' eta Antton Idiakez, Pello J. Aranburu, Marian Bidegain eta Iñaki Rezolak idatzitako 'Joxe Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna'.



25: **Agustin Cortes** ordiziar preso libre gelditu zen 18 urte kartzelan egin ondoren.



25: Ataun San Martingo elizako **organo barroko** iberikoaren doinuak biltzen dituen diskoa kaleratu zen. Esteban Elizondo organojo-leak 12 ertaroko pieza grabatu zituen. Organoari buruzko informazioa azaltzen duen liburuxka ere argitaratu zen.

29: **Postako langileek** greba hasi zuten, lanpostuei eusteko.

OSKARBI
OINETAKOAK

Dr. J. R. Martens

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9
943 88 94 82
BEASAIN

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



1:

Ganadua Aralarra igotzeko festa izan zen Larraitzen. Negua beheko larreetan igaro ondoren, Amezketan, Abaltzisketan, Zaldibian eta Ataundik barrera, ardiak, behorrak eta

behiak Aralareruntz abiatzeko denboraldia inauguratu zen ofizialki festa honekin. Guztira, 18.000 ardi, 550 behor eta 600 behi ibiltzen dira Aralarren. Aitzaki honekin, artisau erakusketak, ardi-mozteak, ardi bainuak, behorren markaketa... izan ziren. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu.

2: Gabiriako Osinalde bertso sariketako **lehen kanporaketa** jokatu zen Ordizian. Nahikari Gabilondo eta Oihane Perea sailkatu ziren.

2-3: **Lazkaomendiko jaiak** ospatu ziren.

3: Idiazabalen **Gaztaren eguna** antolatu zuten lehenengo aldiz. Gazta dastatu, erosi eta nola egiten den ikusteko aukera izan zen. Idiazabalgo hiru artzain zaharrenak ere omendu zituzten: Pilar eta Angel Imaz anaia-arrebak eta Bautista Oiarbide.

4: Antton Jaime Gipuzkoako Diputazioko Errepide eta Garraio diputatuak, **Etxegarate 2002**. urterako bikoiztuta egongo zela iragarri zien Etxegarate gainean bildutako Etxegarateko Bikoizketaren Aldeko Plataformako kideei.

6: **Idiazabal Gazta** berriaren denboraldiari hasiera ofiziala eman zion Juan Jose Castillo sukaldariak.

8: Osinalde bertso sariketako **bigarren kanporaketa** jokatu zen Idiazabalen. Amaia Agirre eta Alfontso Jimenez sailkatu ziren.

9: Osinalde bertso sariketako **hirugarren kanporaketa** jokatu zen Brinkolan. Haritz Zerain eta Leire Ostolaza sailkatu ziren.

10: Neskentzako **VII. Doinu zahar txapelketa** jokatu zen Beasainen. Ariane Tokero eta Eider Mujikak irabazi zuten.

11: **Ezin eta Ekitur** enpresak aurkeztu ziren Goiekin. Ezin enpresan hirugarren eta laugarren adineko herri-tarrei giza eta osasun laguntza eskaintzen die. Ekitur aisialdi eta turismo arloko enpresa da. Gipuzkoako Diputazioren dirulaguntza izan dute bi enpresok.

12tik 16ra: **Kultur astea** ospatu zen Itsasondan.

15: **San Isidro eguna**, baserritarren eguna, ospatu zen Goierriko hainbat herrian.

16tik 24ra: Gabirian **Kultur astea** izan zen.

16-17: **Ertaroko azoka** berezia ospatu zen Ordizian, hirugarren urtez.

16: **Maizpide euskaltegiaren X. urteurrena** ospatzeko jaialdia izan zen Lazkaon.

17: **Beasaingo duatloia** jokatu zen.

21: **'Marius et Jeanette'** filmea jatorrizko bertsioan eta euskarazko azpitituluekin ikusteko aukera izan zen Beasainen, Goienizek, Goierriko Euskal Eskolak eta Hitzaro Euskara Elkartek antolatutak.

21: **Nazioarteko Museo eguna** ospatu zuen Ormaiztegiko Zumakalarregi museoak. Karlistak eta liberalak aurrez aurre izan ziren aurtien ere, altxorra nork aurkituko.

21: **Josune Bereziartu** besaindar eskalatzaileak 8c maila duen bidea gainditu zuen, Oñatiko Araotzen.

21-24: **Azentzio jaiak** ospatu ziren Legorretan.

22: **Sasieta Mankomunitateak** antolatutako eskolarteko kartel eta jostailu lehiaketetako sari-banaketa egin zen Beasainen. Kartel lehiaketa Beasaingo Ikastolako Ekaitz Hernandez, Koldo Agirre eta Aritz Cor-sittok irabazi zuten. Jostailu lehiaketa Urretxu-Zumarragako Ikastolako DBHko 2. mailakoek irabazi zuten.

22-31: Beasainen **Loinatx jaiak** ospatu ziren.

23: **XXVII. Osinalde Bertsolari Gazteen txapelketa** jokatu zen Gabirian. Nahikari Gabilondok irabazi zuen.

24: **Altzagarate auzoko jaiak** izan zen.

31: **16 urtean kartzelan** egon ondoren, ongi-etorria egin zitzaion Ordizian Arantxa Karrerari.

31: Zegamarrek **erromesaldia** egin zuten Arantzazura.



29:

Goierriko taldea txapeldun izan zen XVIII. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketan, gaztetxoenen mailan. Iban Urdangarin, Hartz Aierbe, Oier Zurutuza eta Aitzol Munduate atzandarrek eta Irati Goikoetxea besaindarrak osatu zuten taldea. Gazteen mailan, Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Apalategi besaindarrak, finalerako sailkatu ziren.



Exijitu etiketa eta bertoko behi-okelaren bermea izango duzu, naturala eta kalitatekoa.

EUSKO LABEL



Labeldun okelen salmentan duten espezializazio maila handia dela eta, ikur honekin (►) adierazitako Harategi Baimenduek ARTISAU ERAKO HARATEGI ESPEZIALIZATUEN sailkapena dute Kalitateko Eusko Labela duten produktuetan

ATAUN

ERAUSKIN HARATEGIA
Elbarren, 32

BEASAIN

- CARNICERÍA OLANO
Santa Maria, 3
- CARNICERÍA IÑAKI ZUBELDIA
Mayor, 14
- PEIO HARATEGIA
Mariarats, 2
- CARNICERÍA JOSE MANUEL
DEBA
Juan XXIII, 3
- SUPER ARMENDARIZ
Avda. Navarra, 9

SALTSAMENDI HARATEGI-
URDAITEGIA
Igarza Oleta, 12

JOSE HARATEGIA
Jose M^o Iturrioz, 1

IDIAZABAL

LUIS M^o HARATEGIA
Kale Nagusia, 16

ORDIZIA

LUISA MUNDUATE HARATEGIA
Santa Maria, 23

LASA HARATEGIA
Euskal Herria, S/N

EZEIZA HARATEGIA
Mayor, 29

ORMAIZTEGI

CARNICERÍA IÑAKI CAMPOS-
EROSLE
Zumalakarregi, 24

SEGURA

HARATEGI-URDAITEGI GOIKO
EROSLE
Zurbano, 8



EUROPAKO ELKARTEAREN
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA

3: Aralarren, Igaratza inguruan, 'El halcon blanco' pelikula errodatzeko erakitzen ari ziren gaztelua salatzeko prentsaurrekoa eman zuen EHNE nekazarien sindikatuak.

5: Aitor Aseginolaza libre gelditu zen milioi bateko fidantza ordainduta.

5etik 13ra: Otso festa 98 antolatu zuten Ataunen.

6: Ordiziako alkatearen, Juanbi Erauskinen, etxebizitzan lehergailu txiki batek eztanda egin zuen. 8an manifestazioa egin zen Ordizian eraso salatzeko, Udalak deituta.

6: Eustakio Mendizabal 'Txikia' ETako buruzagi itsasondarra hil zutela 25 urte bete ziren apirilaren 19an eta Itsasondon, ekainaren 6an, omenaldi ekitaldi berezia egin zen.

11tik 26ra: Euskara suspertzeko ekitaldiak antolatu ziren Zaldibian.

13: Legorretan Korpus eguna ospatu zuten.



Idiakez eta Iñaki Rezolaren 'Otso Arin eta Ordiziako doktrina (1713)' eta Nerea Muruamendiarazen 'Frantzisko Areso Tolosa organojolea eta konposatzailea (1869-1954)' lanak saritu ziren.

13: Donostiako 'Goizaldi' dantza taldeak eta Ordiziako Udalak Jose Lorenzo eta Kandido Pujana ordiziarrak omen zituzten. Gipuzkoako dantzen erakusleak izan ziren Pujanatarrak.

13: Futbol-7 txapelketa jokatu zen Beasaingo Loinatx futbol-zelaian.

14: Korpus eguna ospatu zuten Seguran.

14: Eskolarteko XI. Mendialdi lehiaketa jokatu zen Idiazabalen.

14tik 20ra: Kultur astea ospatu zen Idiazabalen.

15: Turismo Informazio gune mugikorra eta Begiratokin ibilbidea inauguratu ziren Goieki.

17: Idoia eta Ekain Mendizabal eta Idoia Garmendia ordiziarrak libre gelditu ziren.

18: Joxe Azurmendi Zegamako pentsalariak 'Oraingo gazte eroak' liburua kaleratu zuen.

20: Patxi Eskitxabel Legorretako presoaren askatasuna eskatzeko Gipuzkoa korrikan pasatu zuten. Eskitxabelek zigorraren hiru laurdena beteta du.

21: Euskal Herriko Dantza askatuko txapelketa jokatu zen. Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde azkoi-tiarrak izan ziren irabazle.

23: San Joan suak piztu ziren.

24: Egun hauetan San Joan jaiak ospatu ziren Olabe-rrian eta Seguran.

25: Gabiriako Kamiño Zaharra inauguratu zuen Antton Jaime, Diputazioko Errepideetako diputatuak.

26: Beasaingo Errail antzerki taldeak 'Hitz egin dezagun... sexuaz' lana aurkeztu zuen.


29: San Pedro jaiak ospatu ziren Beasaingo Arriaran auzoan.



30: Ekaitz Goikoetxea Beasaingo bertsolariak

Euskal Herriko Eskolarteko bertso txapelketa irabazi zuen Mungian.

Autowag, s.a.



Golf berria!

943 88 82 54 / 62 / 66

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

943 88 27 93

ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA




ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 943 88 60 70

BEASAIN



BIÑASPRE

USAINDEGIA

OPARIAK

ESTETIKA ZENTRUA

**Opariak
Gabonak 98**

K. Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA



**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ONI**



Suquia

ERAKUSKETA:

☎ 943 88 23 00

K. Nagusia, 10 ORDIZIA

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK
ILUMINAZIOA
INSTALAKUNTZA
ELEKTRIKOAK**

THAILA Boutiquea

PORFIRIO FERNANDEZ Sastrea

HAIZPE Jatetxea

OSKI Oinetakoak

LURDES LASA Ileapaindegia

LUBERRI Loradenda

ARRIZUBIETA hortz klinika

NICK'S English Centre

ZURICH-VITA Aseguru taldea

Optika LARRAÑAGA

ARANTXA Mertzeria

JUBILATU ETXEKO Taberna

AXOLA Jantzidenda

IÑAKI Ileapaindegia

ANA MARI Arraindegia

UNANUE Gozotegia

ARKUPE Tapiztegia

GAIR Aseguruak, C.B. ITTERCOS

Labores AGUR

JOSUNE Estetika Zentrua

IBERDROLA

IZOTZ Izoziak

Zorionak eta Urte Berri on guztioi!!

**JOXE MIGEL BARANDIARAN PLAZAKO
DENDARIEN PARTEZ
ORDIZIA**

3tik 10era: 'Herriz herri, zinea kalean' izan zen Goieniz zine klubaren eskutik.

3-5: San Pedro jaiak ospatu ziren Mutiloan.

3-5: Ataungo Aian Santa Ixabel jaiak ospatu ziren.

4: Gazte Abertzaleak taldeak Gabirian lurralde batzarra izan zuen. Aitor Galdos zegamarra EAKo gazteen taldeko lehendakari kargua utzi zuen.

4: Lazkaon pilotalekua eta Dukearen parkea inauguratu ziren.

4-5: Herri Batasunaren 20. urteurrena ospatzeko bi eguneko festa izan zen Larraitzen.

5: Ordizian izan zen **istri-puan hil zen** Beasaingo 24 urteko Ignacio Gutierrez Alvarez.

8: CAFeko ELA, LAB, ESK-CUIS eta CCOO sindikatuek deituta **manifestazioa** egin zuten Ordiziaraino, enpresako lan hitzarmenaren negoziaketak blokeatuta zeudela salatzeko.

10-12: Ordiziako **Altamira auzoko jaiak** izan ziren.

15: 'Egin' egunkaria itxi zuen Garzon epaileak eta Polizia operazioan Beasaingo Ramon Uranga atxilotua izan zen. 23an 2 orduko lanuztea egin zen itxiera salatzeko. Beasainen baita manifestazioa ere.

15-18: I. Gazte festak izan ziren Zaldibian.

17: Ordiziako **Antzerki taldeak** 'Romeo eta Julieta' lana aurkeztu zuen.

18-19: Zegaman 'Mugaz muga' ibilaldia egin zuten.

18-27: Ordiziako **Santa Ana jaiak** ospatu ziren.

18: Zegaman Barrenaldekoek III. bazkaria egin zuten.

20: Gazteen auzolanderia jarri zen martxan Ataungo San Gregorion, errota multzoaren azpiegitura hidraulikoa berreskuratzeko. Beasainen ere izan zen auzolanderia, Igartza jauregia txukuntzeko.

26: Venezuelako mendietan hil zen **Carlos Cuadadori omenaldia** eskaini zioten Ordiziako hainbat taldek. 4an Gaztelu mendian plaka eta monolito bat jarri zuten.



27: Ataungo **Migel Mari Imaz Apalategi** zenari buruzko liburuaren aurkezpena egin zen Ataunen. Iñaki Imaz ataurak idatzi du liburua.

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea

ORDIZIA



Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxoak aukeran

● Ogitarkeoak

Zorionak eta Urte Berri on!



Rubiorenena

jatetxea

Zorionak eta Urte Berri on!

AURREZ PRESTATUTAKO PLATERAK

GABONETAN ETA BAITA URTE OSOAN ERE PLATERAK PRESTATZEN DITUGU ZURE ETXERA, ELKARTERA, KUADRILEN BAZKARIETARA, e.a. ERAMATEKO

● Eguneko menua

● Dastatzekoa

● Lanekoa

● Karta

Tfnoa.: 943 88 57 60



● Iturgintza

● Berogintza

Zorionak eta Urte Berri on!

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

4-13: Ordizian **euskal astea** ospatu zen.

4-8: Beasaingo **Igartza auzoko jaiak** ospatu ziren.

4-6: Ataungo **San Gregorion festak** izan zituzten.

5: Idiazabaldarrek, segurarek eta zeraindarrek **erromesaldia** egin zuten Arantzazura.

6: Legazpiko **artzain egunean** Segurako Mari Karmen Murua eta Felix Goiburu senar-emazteek irabazi zuten gazta txapelketa. Bestalde, Goierriko hiru artzain omendu zituzten: Zeraingo Kandido Aizpeolea, Zegamako Karmen Oiarbide eta Zaldibiako Antonio Mendiababal.

6: Beasaingo **Usurbe mendiko jaiak** ospatu zen.

9: Ordiziako **azoka berezia** ospatu zen. Gazta txapelketa ospetsua, Eginoko Luis Perez de Albenizek irabazi zuen. Barazkietan Antzuolako 'Lapatza barazkiak' izan zen irabazle eta fruituetan Zaldibiako Jesus Irazustabarrena. Eusko oi-loa atalean Zallako Jose Antonio Magunagoikoetxeak jaso zituen lehenengo bi sariak. Lehenengo aldiz Pirenaika arrazako Gipuzkoako txapelketa jokatu zen. Idiazabalgo Prudentzio Urkiak eta Pedro Katarainek jaso zituzten saririk gehienak. Beste berrikuntza bat ere izan zen azoka berezian: lehenengo aldiz asteazkeneko azokan izaten diren bareritarrak saritu zituzten. Gabiriako Antonio Murgiondok jaso zuen lehen saria.



Angeluko Ur Apalategiri sari edo akzesit berezia eman zioten.

10: Mandubian Gipuzkoako **artzain txakur txapelketa** jokatu zen. Arrasateko Jesus Mari Plazaolaren 'Artzain' txakurrak irabazi zuen.

11: Ekain **Arruabarrena** lazkaotar txirrindulari parolimpikoa Koloradoko mundialean izan zen.

13: VII. **Lazkao Txiki bertso paper lehiaketako** sariak banatu ziren. Gazte-txoetan Ataungo Iban Urdangarinnek irabazi zuen. Gazteetan Haritz Zeberio beasaingarriak eta helduetan Zaldibiako Rufino Iraolak.

13: Altzaniako Partzone-riako **ehiz postuen enkan- tea** egin zen Segurako uda- letxean.

14: **Lazkaibarko** lurrazpi- ko pasalekua behin-behine- koz ireki zuten.

14-20: **Kultur astea** ospatu zuten Zerainen. Txondorra piztu zuten aurt- en ere.

17: ETak **mugagabeko su-etena** iragarri eta hu- rrenge egunean HBk mani- festazioa egin zuen Ordi- zian, 'Hitza eta erabakia' le- mapean.

20: Gipuzkoako **Nekaza- ritza Ekologikoaren IV.** azoka egin zen Zerainen, Biolurrek antolatuta. Le- hengo aldiz, haragi ekologi- koa jarri zen salgai.



20-29: **San Migel jaiak** izan zituzten Lazkaon.

20 eta 24: Beasaingo **Lazkaibar auzoko jaiak** os- patu ziren.

25-27: Idiazabalgo **Ursuaran auzoan** San Migel jaiak ospatu zituzten. Baita Ormaiztegin ere.

25-29: Gaintzan **San Migel jaiak** izan zituzten.

26: Ormaiztegiko **Gre- gorio Muxika** euskaltzalea- ri omenaldia egin zioten. Bere biografia biltzen duen liburua aurkeztu zuten Eli- xabete Garmendia kazetari ormaiztegiarrek.

26: Ataunen **Gabriele- nea aterpetxea** inauguratu zuten.

26: Zenbait **euskal artis- ta** Zerainen bildu zen tertu- lia berezi batean. Besteak beste, Nestor Basterretxea, Jose Antonio Sistiaga, Joa- quin Rodriguez, Jesus Jau- regi eta Koldo Telleria. Ar- tisten ardura eta kezkez hitz egin zuten bertan.

26: Zegaman **V. Kantu festa** izan zuten.

26-29: Altzagan **San Migel jaiak** ospatu zituzten.

27: 'Ordizian'eko ilea- paintzaileek antolatuta, **ile- apaintzaileen lehiaketa** eta erakustaldia izan zen Herri Antzokian.

27: Beasainen **Extrema- durako eguna** ospatu zen. Extremadurako produktuak izan ziren salgai.

27: **Mendi ibilaldi neur- tua** izan zen Ataunen, Kirol Elkarteak eta Oargi Troska- etak antolatuta. San Martin- dik Astigarragara, 19 kilo- metroko ibilbidea egin zu- ten.

29: Gipuzkoako Diputa- zioko Gobernu batzordeak **Etxegarate** bikoizteko proiektua onartu zuen. La- nak udaberrian hasiko dira eta aurrekontua 9 mila mi- lioikoa izango da.

29: Andoainen izan zen **auto istripuan** hiru goierri- tar hil ziren: Itsasondoko Jon Mirena Mendizabal eta Juanita Amundarain senar- emazteak eta Beasaingo Ne- rea Ezpeleta hiru hilabeteko haurra.



14:

Ormaiztegi-ko Irizar kooperatibak instalakuntza berriak inauguratu zituen. 3.000 milioiko inbertsioa egin dute. Lantegi berriak 30.000

metro karratu ditu eta aparkaleku berriak 20.000 metro. Inbertsio berriari esker, Irizarren ekoizpen ahalmena %50 handitu da. Egunean 6 autobus egiteko prestatuta daude instalakuntza berriak. Lanpostuak ere sortu dituzte: 125, aurrikusitakoak baino 82 gehiago. Gonbidatu ugari izan ziren inaugurazio ekitaldian. Besteak beste, Jose Antonio Ardanza EAEko lehendakaria, Jabier Retegi Industria sailburua eta Mari Karmen Garmendia Kultura sailburua.

5-12: Santa Fe jaia ospatu zituzten Zaldibian.

12: Legorretako Aitor Esnaola aizkolariak 3. mailako Euskadiko txapelketa irabazi zuen.

16-18: Ordiziako Majori Kiroldegian Gipuzkoako artisauen azoka, 'Artisaualdia' izan zen.

17: Ordiziako Altamira auzoan PSE-EE alderdiak



25:

Herriko Etxea inauguratu zuen.

18: Santo Domingon deportaturik zegoen Belen Gonzalez lazkaotarrak ihes egin zuen.

24: Goierri bailarako odol-emaleek, urteko bilkura nagusia izan zuten Ataunen.

Ardiki eguna ospatu zen Zaldibian. Mondejutan Ordizian bizi den Joxepa Armendariz zaldibitarak irabazi zuen. Aralarko artzainen gazta txapelketa, berriaz, Orioko Inaxio Irastorzak irabazi zuen.

25: Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak izan ziren. Goierri emaitzak hauek izan ziren: EH-HB, 7.798 boto; EAJ, 6.411 boto; EA, 4.244 boto; PSE-EE, 2.772, PP, 2.472; eta IU-EB 881 boto.

28: Azaroaren 1era bitartean Kultur astea izan zen Legorretan.



HERRI BATASUNA

Ordiziako Herri Batasunak gabonak eta urte berri zoriontsua opa dizue herritar guztiei, preso guztiak etxera ekarriaz.

ORDIZIA



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



Gabon zoriontsuak eta Urteberri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

ARRANO
TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



Eguberrietan ere preso eta iheslariak gogoan

Nagusia, 12
BEASAIN



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 **ORDIZIA**
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 **BEASAIN**

ALDASORO

Taberna - Jatetxea

Urte Berri on!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 **ORDIZIA**



2:

Joxetxo Zufiaurre beasaindar etnografoak 'Beasaini buruzko monografia etnografikoa' liburua aurkeztu zuen.

1: **Udazken kulturala** ospatu zen Beasainen, urriaren 31n hasita.

5: ETBk **Euskaraokea** saioa grabatu zuen Beasainen.

7-15: Ataun San Martinen **San Martin jaiak** ospatu zituzten.

7-15: Araman **San Martin jaiak** izan zituzten.

9-15: **Mendi astea** ospatu zen Ormaiztegin.

12-14: Zegaman **'Joxe Azurmendi ezagutuz'** jardunaldiak ospatu ziren.

13: Egun inguru honetan **Bach musikaldiaren** barruko emanaldiak izan ziren Ataunen eta Ordizian.

14: **San Martin azoka** ospatu zuten Zegaman.

14: **XIV. Odolki txapelketa** jokatu zen Beasainen. Juanita Urretabizkaiak irabazi zuen, Beasaingo Zubeldia harategikoak.

14-15: Ordiziako **Astokaleko jaiak** ospatu ziren.

16-20: Beasaingo **Exkiaga Auzo etxeak** V. urteurrena ospatu zuen.

17-22: Arabar **Errioxako** ardoaren VI. azoka izan zen Ordizian.

20-21: Itsasondon **Kultur-Elejira** izan zen, Udalek Euskaldunen Mankomunitateak antolatuta.

20-30: **San Andres jaiak** ospatu ziren Ormaiztegin.

21: **Haurrek hauteskundeak** izan zituzten, Unicef

feke antolatuta. Haurren aldeko hitzarmena ezagutzera eman, bere esanahia zabaldu eta giza baloreei buruzko hausnarketa sakon bat egin nahi izan zen. Haurrentzako eskubide garrantzitsuena zena bozkatu zuten.

21: **Urruñako ikastola** diruz laguntzeko eta elkartasuna adierazteko jaia antolatu zuten Ordiziako eta Beasaingo ikastolek Ordizian.

22: **Errezil sagarraren lehiaketa** jokatu zen Gabirian. Miren Agirrezabalek irabazi zuen.

22: Ataungo **Hiru Auzoetako XIX. korrikaldia** jokatu zen. Manu Hurtado eta Mari Karmen Garcia izan ziren irabazleak. Ataundarretan onenak J.Ramon Agirre, Pili Albisu eta Juan Arrondo izan ziren.

NAGASAKI
Taberna

Urte Berri on!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN



Zaldizurreta K. BEASAIN

ITZALA
taberna

Urte Berri on!

Zaldizurreta, 3

☎ 943 88 30 24 BEASAIN

KOIOTE
KOIOTE
pub

Urte Berri on!

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN
Garagarza, 5
Etxezarreta kalea
ORDIZIA



GOIERRI Ikerketaren Zentrua
Gidatzeko eta armen baimenak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Zorionak eta Urte Berri on!

98-12-26an eta
99-01-02an itxita

Garagartza Plaza 10

☎ 943 888734

ORDIZIA



ITOITZ
kafetegia

☎ 943 16 18 08

Goierri Kalea ORDIZIA

ogitartekoak

garagardo
berezia

1: Durangoko azokak **Juan Jose Agirre** Lazkaoko beneditarra omendu zuen, 25 urtean bildu dituen euskal arloko gaiekin osatu duen liburutegiagatik.

5: **Ordiziako Gazte Eki-mena** taldea aurkeztu zen, presoen egoeraz kezkatutik.

6: **San Nikolas** egunean kantu eskean aritu ziren Segurako eta Zegamako haurrak.

10: **Ramon Uranga** preso beasaindarra libre utzi zuten, kartzelan zegoela ebakuntza egin eta koma egoeran gelditu ondoren.

11: Madrilen Atletico de Madrid taldeko jarraitzaileek labankadaz hil zuten **Aitor Zabaleta** Zegaman hilotzatu zuten. Aita, Javier, zegamarra du.

11tik 31ra: **Joxemiel Barandiaran** hil zeneko VII. urtemuga ari dira ospatzen Ataunen.

13: Zumarragako **Santa Lutzia azokan** goierritarrek hainbat sari lortu zuten. Zaldi lehiaketan, Zaldibiako Pottoka elkarteak behorren lehiaketa irabazi zuen. Errezil sagarren atalean gabiriarrak eraman zituzten lehengo hiru sariak: Maria Etexazarretak, M. Isabel Zumalakarregik eta Xabier Arratibelek. Kapoietan, Lazkaoko M. Teresa Albisuk irabazi zuen. Barazki eta fruta atalean Gabiriako Miren Agirrezabalak bigarren saria eraman zuen eta ezti lehiaketan, hirugarrena izan zen Beasaingo Jose Telleria.

13: Beasaingo **Garin auzoko eliza** berriari Jose Maria Setien Donostiako Gotzainak eman zuen meza.

13: Ordiziako **Lidia Frias** ek Gipuzkoako 'Miss Sinpatia' saria jaso zuen.

16: Zaldibiako 55 urte E.T.T. langilea larriki zauritu zuen **Ian istripuan** Lazkaon. Polgraf enpresan gertatu zen



ren lehiaketara, teknika eta material ezberdinak erabiliz. Sarituaren berri ezin izan dugu jaso, inprentara aurreko egunean eraman genuelako. Hurrengoan izango duzue irabazlearen berri.

ezbeharra, zauritua makina bat garbitzen ari zenean.

16: Gipuzkoako I. **Txistorra lehiaketa** jokatu zen Ordizian. Donostiako Pedro Jesus Alberdik irabazi zuen.

18: Ormaiztegiko **Irizar kooperatibak** 13.438.826 pezeta eman zizkion Eusko Jaurlaritzari, Sudanen, Kari-ben eta Ertamerikan momentu honetan lanean ari diren Gobernu Kanpoko Erakundearen artean banatzeko.

18: Beasaingo **Ikastolak** antolatutako 'Eguberriz: hitza bihotzari euskara bizitzari' kanpainaren inaugurazioa izan zen. Urtarrilaren 3ra arte ekitaldi ugari izango dira Bernedorenako karpan.

20: Beasaingo San Inazio kaleko koadrilakoek **patata tortilaren marka** berria jarri zuten Guinnessen. 590 kilo-koa egin zuten.

23: **Olaberriako Prycan** Goierriko eskolarteko Olenzeroen lehengo ekitaldiko sari banaketa egin zen. 15 Olentzero aurkeztu ziren

21: GOIERRITARRA aldizkariak 300.000 pezetako bidaia zozketa egin zuen Ordiziako Notarioaren aurrean. **Zenbaki saritua 3.486** izan zen.

21: Santo Tomas egunean hainbat txistorra jateko aukera izan zen. Ekitaldi ugari antolatu ziren Goierri. **Olaberriako Prycan** esaterako 225 kiloko 'Jaime II' txerria zozketatu zuten Albizturko txistorra erosi zuten artean. Lazkaoko Javier Carrasco izan zen irabazlea.

30: Eguberrietako **azoka berezia** ospatuko da Ordizian.

31: **Presoak Euskal Herri-
ra** ekar ditzaten eskatzeko bilkura eta manifestazio ixilak egingo dira herri gehienetan. Batzuetan Senideak elkarteak deituta, besteetan udalek deituta.



12: VII. Aterpe **Pintura lehiaketa** sari banaketa egin zen. Tolosako Eudurne Maritxalarek irabazi du aurtengo edizioa.

KISKÁ
PUB

Zorionak eta Urte Berri on!

Santa Maria ORDIZIA



LIRAIN
PUB

Urte Berri on!

Etexazarreta, 5 ORDIZIA

LAZKAO

Abian da gabonetako egitaraua

Gabonak ekitaldiz beteta dagozku. Gaur arte ekitaldi hauetariko asko burutu dira baina beste asko falta dira oraindik egiteko. Jende gehien biltzen dituzten ekintzak gainera oraindik heltzeaz daudenez badugu denbora zertan pasa.

Gabonetako protagonista nagusiak haurrak direnez, abenduaren 28, 29, 30 eta 31an, beraientzat joku eta tailerrak egongo dira goizeko 11etatik 13,00etara. Egun hauetan bertan baina arratsaldeko 4etan, haurrentzako pelikula eskainiko dira Udaletxeko Areto Nagusian.

Haurrekin jarraituz, batik bat beraiei hainbeste ilusio egiten dien Errege Kabalgata eskainiko dute Zawopikoek urtarrilaren 5ean. Aurtun ere herrian zehar egingo duten biraren ondoren hurrek zein opari nahi duten eskatzeko aukera ere izango dute.



Astotxo eguna

Astotxo Eguna izango dugu urtarrilaren 10ean. Bi ekitaldi nagusi izango ditu azken bi urtetan bezala aurtengo Astotxo Egunak, bata aintzi-

natik datorkigun ohitura zaharra, Egiptorako Ihesaren antzezpena Zawopiren eskutik eta bestea Ansoategi Kultur Elkartek astoari eskainiko dion omenaldia.

Honako hau duzue egitaraua. Goizeko 11etan Meza Nagusia zistertarren kontentuan. Meza amaitu ondoren Egiptorako Ihesa antzezlaren aurkezpena Zawopi aisialdi taldearen eskutik. Segidan astoari omenaldia eskainiko zaio Ansoategi Kultur Elkartek antolatuta eta arratsaldeko 5etan pilota partiduak izango dira kiroldegian.

Aurtengo astoaren omenaldiak gainera berezitasun batzuk izango ditu, lehenengo Goierriko astoen lehiaketa egingo da, eta bigarrenik asto proba burutuko da herriko plazan.

Goierriko astoen lehiaketan, Goierriko edozein astojabek parte hartu dezake, baina, gehienez asto bakar bat aurkeztuz. Astoak goizeko 11etan Lazkaoko plazan egon beharko dute. Bi sari banatuko dira lehiaketan, bata asto onenari 30.000 pezetakoa eta bestea dotoreen prestatuta aurkeztutako astoari, 20.000 pezetakoa.

Aldi berean, Lazkaoko



Txorizugarrien lehiaketa

Hauk izan genituen lehiaketa honetan sarituak: 9 urte bitartekoetan, 3. mailako ikasleak. 10 eta 14 urte bitartekoetan lehengoa 'Alaiak' taldearentzat eta bigarren saria 'Antzar euskaldunak' taldearentzat, esaldi onenaren 'S. G. T.' taldeak jaso zuen. 19 eta 60 urte bitartekoetan lehenak 'Xarmangarriak' taldea eta bigarrenak 'Azkena' taldea. 60tik gorakoetan berriz, Joan eta Iker Agirre eta Patxi Telleriak irabazi zuten. Ikusleen saria, 'Sonbrero jauna' taldearentzat izan zen.

plazan bertan asto proba jokatuko da. Axier Abendibar eta 'Sartzibar' Mallabiarrek izango dira partaideak bakoitza asto banarekin, eta asto bakoitzak 500 kiloko harria karriatu beharko du.

Euskal presoak Euskal Herrira

'Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira!' kanpainaren barnean Senideak taldeak mozio bat aurkeztu zuen Lazkaoko Udaletxean. Mozio hortan euskal presoen eskubide guztiak errespetatzeko eskatzeaz gain Udalarari abenduaren 31n mobilizazioak deitu ditzen eskatzen zen. Mozioa onartua izan zen eta beraz, abendua-

ren 31 eguerdiko ordu batean kontzentrazioa egingo da Udaletxearen aurrean Udalak deituta.

'Moskorak' mus txapelketa

Abenduaren 12an jokatu zen mus txapelketa honen irabazleak Luis Mazo eta Florencio Peromingo zumarragarriak izan ziren, beraientzat beraz, 120.000 pezetako saria. Bigarrenak, Isidoro Conejo eta Mario Gamiz legazpiarrak, hauek 60.000 pezeta jaso zituzten. Hirugarrenak Juan Mari Lasa eta Pedro Jose Sanguino herritarriak izan ziren eta laugarren berriz, Isidro del Rio eta Xabier Aldasoro ordiziarrek.

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Urte Berri on denoi!

Iturtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA

AIARZA KARROZERIA

EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10
943 88 05 65 OLABERRIA

ZEGAMA

Urte zaharra herrian

Urtetik urtera geroz eta jende gehiagok Urte Zahar gaua herrian pasatzeko erabakia hartzen du, giro ederra sortuaz eta parranda majoa egiteko bide eginez. Aurten- gorako ere Kultur etxea proposamen honekin datorkizue, herrian horrelako giroa mantendu dadin. Animatu eta ondo pasa!

Bai Euskarari!

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, giro ederrean ospatu ziren 'Bai euskarari' kanpaina dela eta herrian gauzatutako zenbait ekintza abenduaren 20an. Besteak beste, eguraldiak aginduta, buruhandiak herriko pilotalekuan ibili ziren haurren gozamenerako. Ondoren txistorra eta sagardoa banatu zen udal arkupeetan. Guzti hori herriko trikitilariak lagundurik.

Tobera Musika

Eskolaren oharra

Tobera Musika Eskolak aurtan ere Errege Kabalgata antolatu du. Bertan aurreko urteetan bezala antortxak eramateko jendea behar da, beraz, bertan parte hartu nahi

Herritarren erantzun bikaina San Nikolas egunean

Herritarrek eskuzabaltasuna agertu zuten San Nikolas eguna zela eta, Mitch hurakanak kaltetutakoei laguntzeko Aitxuri herri eskolako haurrek egindako deiari. Bertan jasotako 88.096 pezetak, argazkian ikusi daitekeen bezala, bi obixpoek, 'Medicos sin fronteras' erakundearen diru kontuan sartu zituzten.

Diru laguntzeaz gain, San Nikolas egunaren aurretik, Segurako Laureano Telleria ikastetxean izan zen, egun honen inguruko ohitura eta santuaren inguruko historiak kontatzeko.

Urte askotan erabili izan ez den bakuloa eta gurutza ere aurtan berreskuratu egin dira.

Goiko argazkian: 2 obixpoak dirua bankura eraman zutenean.

Behekoan: Laureano Telleria hitzaldia ematen.



duenak eman beza izena Udaletxean edo honako telefono hauetara deituz: 943

801351 edo 943 801570 (erantzungailuan utzi izena). Kabalgata aurretik luntx bat

izango da partaideentzat.

Maiden Azurmendi



Umeen arropa denda

Gabon zoriontsuak eta Urte Berri on!

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

Urte Berri on!

ARANA, 1
☎ 943 88 93 88
BEASAIN

LURRAZPIKO JAIA !!



EDARITEGIA

KAFETEGIA

Jar

Urte Berri on!

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 943 88 86 81

BEASAIN

ORDIZIA

Odolki txapelketa berrikuntzen artean

Eguberrietako aparteko peria hilaren 30ean ospatuko da aurten. Bertan, ohiko postuez gain, ez dira faltako kapoi, indioilar eta antzarren erakusketa, Euskal Herriko errezil sagarren lehiaketa, fruitu lehiaketa, fruitu lehoreen erakusketa eta ardi latxa eta aharien erakusketa. Baina asteazken honetakoan izango da nobedaderik. Lehendabiziko aldiz Gipuzkoako odolki txapelketa egingo da Beti Alai pilotalekuan. Gipuzkoako harakin eta txarkuteroen elkarteak antolatutako lehiaketa izango da berau eta odolkia promozionatzea du helburu.

Euskal Jaietan egindako peri berezian bezala, oraingoan ere asteazkenetako etortzen diren baserritarrek aparteko lehiaketa izango dute. Honetarako, kontuan hartuko dute epaimahaikoek baserritarrek euren postua nola apaintzen duten eta baserriko produktuen kalitatea, fruta eta barazki alorrean.

Igeriketa txapelketa

XVI. Eguberrietako Aldundiko Sari Nagusia jokatu da abenduaren 29an, asteartea, Majori Kiroldegian. Urtero bezala egungo igerilari onenak ikusteko aukera izango da igerilekuan.

San Silbestrea

Ordizian ere San Silbestre Proba egingo da ostegunean. Vallecakoak bezain garrantzitsua ez bada ere jende sail mordoa biltzea lortzen du urtero hemengo lasterketak. Ibilbidea ohikoa izan da eta adin guztietakoek izango dute korrika egiteko aukera. Nagusienak 18:30etik aurrera aterako dira udaletxe artetik.



Filipineta kale ia amaierako etxea bota berri dute argazkian ikus daitekeen bezala. Datorren mendean sartzearekin batera erabat itxuraldatuko da Filipinetako ingurune hori. Arau subsidiarioetan azaldu genizuen bezala alderdi horretan etxebizitza berriak joango dira.

Kirol balantzea

Gabonetako geldialdea aprobetxatuz herriko kirol talde nagusien balantzea egiteko garaia iritsi da. Eta hasi Errejon mailako futbol taldearekin hasi behar, Preferentetik jaitsi berria izaki sailkapeneko goi postuetan ibili ordez azken aurreko postuan baitago burua ezin altxaturik. Denboraldia luzea da oraindik eta ziur zulo horretatik ateratzeko ahalmena izango dutela. Jubenil mailako bi taldeak ere ez dabilta batera fin, Euskal ligan bata eta bigarren mailan bestea azkenaurrenak baitira. Kadeteak beraien dagoen multzoan erdialdean sailkatuta daude. Denboraldi nahikoa irregularra daramate orain artean. Areto futbol leko neska taldea ere denentzera partidu bakarra irabazita sailkapeneko azken postuetan daude.

Eta futboleko gauzak beltz badaude zer esanik ez saskibaloian. Nagusiak neurketa bat irabaztea zer den ez dakitela dabilta. Emakumezkoak, berriz,

sailkapeneko erdialdean.

Momentuz poztasuna ekartzen duen talde bakarra eskubaloian dabilen Hiper Armendariz da, beasaindarrarekin batera talde buruak baita. Manris eta Valor-ek zuzendutako taldea denboraldi txukuna egiten ari da, orain arte bi neurketa bakarrik galduaz. Rugby taldea ere ahal duen guztia ematen ari da aurten estreinatu berria duen goi maila horretan. Orain arteko neurketa askotan zortea falta izan duten arren, maila ona erakusten ari dira.

Dirulaguntza banaketa

Iparra-Hegoa Kooperazio Programak garatzeko eman beharreko dirulaguntzak erabaki berri ditu Udalak. 14 proiektu desberdin aurkeztu zituzten gobernu kanpoko hainbat erakundek eta azkenik Udalak 6ri laguntzea erabaki du. Guztira ia 6 milioi emango dira eta honela banatuko dira: Ekuadorreko Erlezain kooperatiba sendotzeko milioi bat emango

da (ADSIS), Indiako etxe-koandreei bufalo emeak emateko 1.100.000 pta. (ADT), Gineako etxebizitzak saneatzeko aurrekoari bezainbat emango zaio (Hnas.de la Caridad), Guatemalako irakasle maien trebakuntzarako "Manos Unidas"i milioia pasatxo emango zaio, Guatemalako odontologoaren trebakuntzarako Mugen Gaintetik erakundeak milioia eta hirurehun pezeta hartuko ditu. Azkenik 325.000 pta. Tibet aldera joango dira Ropkaren bidez, bertan osasun eskola eraikitzeko asmoz. Gainontzeko eskaerak atzera botatzeko hainbat arrazoi izan dira, hala nola finantzatzeko aukera eskasak izatea edo dirubanaketen irizpideetatik kanpo egotea.

Errege kabalgata

Olentzeroren etorrera izan genuen urtea amaitu aurretik. Eta orain txanda Ekialdetik datozen 3 Erregei dago. Urtarrilaren 5ean Bustuntzatik hasita herriko hainbat kale pasako dituzte Erregeek Enparantza Nagusira iritsiaz. Katekesiak antolatuko du oraingoan ere ekitaldia.

Lidia Frias

20 urteko Altamirako neskatxa aipagai dugu berriro ere. Baina oraingoan ez da atletismoan lortu dituen emaitza onen ondorioz, Miss Gipuzkoa ospakizunaren ondorioz baizik. Izan ere, jokatu berri den aipatu lehiaketan aurkeztu zen Lidia eta bertan, sarituen artean izan genuen. Beraiekin lehiari ibili ziren neskek hala erabakita Miss sinpatia saria eskuratu zuen.

Aitor Calvillo

ZALDIBIA

Aitzol Sukia profesionaletara Asperekin



Pelotari gazteak Aspe enpresarekin kontratu profesionala sinatu du 4 urterako. Debutaren eguna oraindik finkatu gabe badago ere urtarrilaren erdi aldera izango da. Partidua, ziurrenik, iaz afizionatuetan bikote izan zuen Aritz amezketarrarekin izango du.

Azken aldi honetan, DV txapelketa jokatzeko aritu da Sukia; finala abenduaren 26an izan zen. Partidu hauetan Aspeko ikuskatzaille bat bera aztertzen ibili zen. "Logroño entrenamendua egitera gonbidatu ninduten eta 4 urterako kontratua proposatu, urtean gutxienez 70 partidua jokatzeke", azaldu digu Aitzolek. Ez zuen duda handirik izan eta gustora sinatu zuen profesionaletan bere lehen kontratua. "Uda aurretik Asegarcerekin ere izan nuen harremana baina gehiago kasurik egin ez didatenez Asperen aukerari heldu diot".

"Oso gustora nago, jokatzeke ilusio handiarenkin". Gainera, orain telebistaren 20an jokatu zen kadeten mailako finalean 18-6 gailendu zitzaion Mendizabal Jauregiri.

Bestalde, Aratz Mendizabal Laguardia 15 urteko zaldibitarak 'Cafés Baqué'k antolatutako txapelketa irabazi berri du Ordizian. Abenduaren 30, asteazkena, arratsaldeko 4,30etan, magoaren saioa.

Kultur ekintzak gabonetan

Abenduak 28, 29, 30 eta urtarrilak 4 eta 5, goizeko 11etatik 13etara, 7-11 urte bitarteko haurrentzat, kultur etxean plastika tailerra.

Urtarrilak 4, astelehena, arratsaldeko 4,30etan, kultur etxean, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa.

tan pelota partidu asko ematen dituzte, "bultzada handia hartu du pelotak. Oraingoan nire mailakoekin jokatuko ditut partidua. Horiekin ahal dudana papeirik onena egiten saiatuko naiz eta gero ahal den goien igotzen saiatu. Profesionaletan tantoa ez da erraz egiten, jo eta jo aritu behar da eta pelota gutxi failatu", dio Sukiak. Beraz, oraingoan ikasten joatea da Aitzolen asmo nagusia.

Aratz Mendizabal

Bestalde, Aratz Mendizabal Laguardia 15 urteko zaldibitarak 'Cafés Baqué'k antolatutako txapelketa irabazi berri du Ordizian. Abenduaren 30, asteazkena, arratsaldeko 4,30etan, magoaren saioa.

ren 20an jokatu zen kadeten mailako finalean 18-6 gailendu zitzaion Mendizabal Jauregiri.

Euskal presoak Euskal Herrira

Hilaren 31n, udalak onartutako mozioetako baten haritik, mobilizazio ixila deitu dute HB eta ZUT udal taldeek. Iluntzeko 7etan hasiko da 'Euskal presoak Euskal Herrira' lelopean antolatutako mobilizazioa hau. Deialdi honekin bat egin dute herriko beste zenbait talde ere.

Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga

EZKIO-ITSASO

Laurogeigarren hamarkadan, Ezkio-Itsasok bere historian zehar izan duen biztanle kopururik txikienera iritsi zen. Mende amaiera hurbiltzen ari denean, herriaren egoera erabat bestelakoa bihurtu da. Hainbat herritarrek bertan bizitzea erabaki dute eta inguruko herrietako jende askok ere Ezkio-Itsaso aldera zuzendu du begirada.

Biztanle igoeraren erdia jarraituz, kultura ere lehen pausoak ematen ari da

bere garapen bidean. Arlo honetan jendearen interesa piztu duen proiektua Igartu Beiti baserriarena izan da. Orain urte batzuk Gipuzkoako Foru Aldundiak erositako baserri honetan eginiko lanen ondorioz eta denon zorionerako XVI. mendeko euskal baserriaren aztarnak agertu dira.

Hau horrela izanik, Foru Aldundiak baserri hau museo bihurtzea erabaki du. Horretarako behar diren eraikuntza eta berrikuntza

lan guztiak momentu honetan egiten ari dira.

Baserri honek sorturiko giroaren ondorioz, kulturen inguruko mugimendua ere somatu da. Egoera honen barne sortu da 'Yartu' Kultur Elkarte. Igartu Beiti baserriaren inguruan eta herrian dauden eta etorkizunean sortu litezkeen kultur ekintza guztiei babesa ematea da elkarte honen helburua.

Ezkio-Itsasoren etorkizunean hain garrantzitsua

izango den garapen kulturalak herritar guztien laguntza beharko du. Horretarako Elkarte hau bultzatzen ari diren pertsonen ametsa ahalik eta bazkide gehien izatea da.

Beraz, zuen partaidetza-
ren zain duzue 'Yartu' Kultur Elkarte

Joseba Etxezarreta

'Yartu' Kultur Elkarte

IDIAZABAL

Urte berriaren atarian



1999 hasteko egun gutxi geratzen da. Urte berriak eka-
rriko duena aurrez jakitea
zaila den arren, herrian men-
de honetako azken urteak
utziko dituen hainbat albiste
aurrikusi daiteke.

● **Etxegarateko bikoizke-
taren bigarren fasea** inau-
guratu da urtea hasi eta
gutxira. Inaustitik, Gaztelu
jatetxera bitarteko errepide
zatiak lau karril izango du.
Lan horiek bukatuta,
1999ko udaberrian ekingo
zaio Etxegarateren bikoiz-
ketari. Zortzi kilometro t'er-
diko bide zatia bikoiztuko
da, horretarako aurrekontua
9 mila milioikoa da.

● **Futbol zelai berria** izan-
go du Idiazabalek datorren
urtean. Aizkorreta eta Kate-
rako bidearen artean dauden
terrenoetan egongo da jarri-
ta. Proiektua eginda dago
eta Sanblasetan jendaurrean
erakutsiko du Udalak. Ezo-
latzak 17 urte bete ditu
abenduan, eta datorren urte-
aren hasieran utziko dio
Idiazabal Kirol Elkartek
bertan jokatzeari. Futbol ze-
lai berria egin arte inguruko
herrietako zelaietan jokatu-
ko dute herriko futbol talde-
ek.

● **Eguneko zentrua Pilar
Enean.** Hastear dagoen ur-
tean hasiko dira Pilar Enean

Eguneko Zentrua egiteko la-
nak. Oraindik proiektu ze-
hatzik eta aurrekonturik ez
dagoen arren 1999 urtean
Eguneko zentrua egiteko au-
rrerapauso handiak emango
dira.

Gabonetako ekitaldiak

Urteberri egunean, urteroko
ohiturari jarraituz, Udalak
ardoa partituko du iluntzean
plazan.

Urtarrilaren 5ean Errege-
en kabalgata iritsiko da he-
rrira. Kinbela taldeak anto-
latu du Errege magoen eto-
rrera, kabalgata arratsaldeko
18.30etan abiatuko da Apaiz
etxetik.

Dantza taldea

Urtarrilaren 11n, astelehena,
hasiko dira dantza en-
tseiuak. 5 eta 11urte bitarte-
ko 57 neska-mutikoei eman
dute izena Axari dantza tal-
dean aritzeko. Horiei guztiei
dantzak irakasten lau herri-
tar arituko dira: Ibon Elorza,
Aloña Galarraga, Olatz No-
graro eta Maitane Urteaga.
Adinaren arabera egindako

taldeen entseiu egunak eta
orduak hauek dira: 5 eta 6
urtekoak, astearte eta oste-
gunetan 19.00etatik
20.00etara. 7 urtekoak osti-
raletan 18.00etatik 19.30eta-
ra. 8, 9, 10 eta 11 urtekoak
astelehen eta ostiraletan
19:00etatik 20:00etara.

Eduardo eta Iparrari omenaldia

Eduardo eta Iparrararen
omenezko ekitaldiak egin
ziren abenduaren 18tik 20ra
herrian. Urtzi Urrutikoetxea
idazle gaztearen poesia ema-
naldiarekin hasi zen omenal-
dia. Abenduaren 20an Mus
txapelketa egin zen Kimu el-
kartean, irabazleak Arkaitz
Galparsoro eta Unai Urkia
izan ziren. Omenaldia igan-
dean bukatu zen, bertan
Eduardo eta Iparrari ome-
naldia eskaini zitzaizen.

Kultur etxea

Kultur etxeko lanposturako
izen emateko epea urtarrila-
ren 5ean bukatuko da. Argi-
bide gehiago behar izanez
gero jo udaletxera.

Xabier Urteaga

OLABERRIA

Olentzeroak eta Jaime II. txerria Prycan

Pryca merkatal zentruan
ekintza berezi ugari egiten
ari dira Gabon inguru hone-
tan. Goierriko eskolarteko
Olentzero lehiaketa egin da
aurten lehenengo aldiz, au-
rreko alean aurreratu genuen
bezala. 15 olentzero aurkez-
tu dira lehiaketara. Era eta
teknika ezberdinetakoak.
Olentzero lehiaketako ira-
bazlearen berri, abenduaren
23an eman zen. GOIERRI-
TARRA aldizkaria, ordea,
aurreko egunean eraman ge-

nuen inprentara eta hurrengo
alean izango duzue emaitza-
ren berri.

Bestetik, Santo Tomas
egunean, abenduaren 21ean,
Jaime II. txerria zozketatu
zuten, Albizturko txistorra
erosi zutenen artean. Lazka-
oko Javier Carrascori egoki-
tu zitzaion txerria.

225 kilo pisatzen zituen
Jaime II.ak, iaz zozketatu
zutenaren bikoitza.



SEGURA

Gabonak

Kantu eta anda txapelketa: abenduaren 20ko neska-mutikoen urteroko lehiaketan, 5 anda aurkeztu zituzten eta 7 talde aritu kantuan. Anda txapelketan, 6. mailakoek jaso zuten lehen saria, Loinazpeko 1go DBHkoak bigarren eta 3. mailakoak hirugarrena. Gabon kantuetan, Loinazpeko 1go DBHkoak izan ziren lehenak, 6. mailakoak bigarrenak eta 5. mailakoak hirugarrenak.



Kabalgata: urtarilaren 5ean arratsaldeko 6,30etan aterako da 3. kabalgata berritua. Ma-

dalenatik abiatuta, antortxa eramaleak, pajeak, heraldoak eta 3 errege magoak Errebe-

letik gora Kale Nagusian sartuta Kaleguenetik bueltan Txanbolinpen Herodesi bixita egin ondoren, Erdiko Kalea jaitsita Bolaleku zeharkatuz, Portikopean jarriko den estalpera hurbilduko dira. Bertan, umeen gutunak jaso eta goxokiak banatu ondoren, ospitalekoiei eta komentuko mojei bixita egingo diete. Argazkian, 1975eko kabalgatako estalpea osatu zutenak.



Urte zahar eguna:

- Mendi elkarteak antolatuta urteroko irteera egingo da Aizkorri goizeko 8,30etan plazatik irtenda eguerdirako bueltatzeko. Argazkia, 1990 inguruan Aizkorri ateratakoa da.
- Arratsaldeko 5etan, Kriseilu txistulari taldekoak lagun dituztela buruhandi eta erraldoiak aterako dira.



- Arratsaldeko 5,30etatik aurrera, Elorri Elkarteak antolatuta, herriko talogileek egindako taloak dastatzeko aukera izango da plazan. Argazkian, herriko talogileak Santa Luziko perian.

Presoen aldeko mozioa

Abenduaren 17an presoen aldeko mozioa onartu zuen Segurako Udalak, HB, EA eta EAJren aldeko botoekin. Bertan onartu ziren puntuak etxe guztietara banatuko dira. Urte zahar egunez, iluntzeko 7etan herriko plazan egingo den konzentrazioa ere dei egingo da.

Labur-labur

- Abenduaren 12ko Zopajale Elkarteko mus txapelketaren irabazleak Benito Gerriko eta Joakin Oiarbide izan ziren.

- Eugenio Elorzak, beste 20ren bat eztigilekin batera

aurkeztutako eztiak, bigarren postua lortu zuen abenduaren 19an Tolosako Gabon periko bertako produktuen txapelketan. Aurreko bi lehiaketetan lehenengo geratu zen. Aizko-



rri inguruko milalora txilar-dunekin egindako eztiak aurkeztu zuen Eugeniok sarietara.

- Zestogintza erakusketa. Kultura batzordeak antolatua

Berriro ere txapeldunorde

Erremonteko txapelketa nagusiko finaleira iritsi den azken 2 urteotan ezin izan du txapela lortu Iñaxio Imazek. Abenduaren 20an, Uharteko Euskalen, Ezkurra lagun zuela, 40 eta 39 galdu zuen Zeberio Ila eta Aizpururen kontra.

Kutxa fundazioaren bitartez. Urtarilaren 9tik 17ra Kultur Etxean egongo dira zesto mota ezberdinak ikusgai, astegunez 18:00etatik 20:00etara eta jaietan 12:00etatik 14:00etara.

- Futbola: Gabonetako atsedendialaren ondoren, urtarilaren 9an izango dute hurrengo jardunaldia herriko 4 taldeek.

- Pelota: Gipuzkoako klub arteko txapelketan, afizionatuen taldea final laurdenetarako sailkatua dago. Hurrengo kanporaketa bi partidutara izango da, joaneko partidua urtarilaren 2 edo 3an jokatu delarik.

Joseba Telleria

BEASAIN

'Euskal presoak Euskal Herrira' manifestazio ixila abenduarien 31n

'Euskal presoak Euskal Herrira' lemapean manifestazio ixila egingo da abenduaren 31an, arratsaldeko 7etan, Zubimuzu plazatik abiatuta, preso eta errefuxiatuen sendiartekoek deituta, eta Udalaren babesarekin. Udaleko ordezkariak bertan izango dira. Ekimen hau, Senideak taldeak Udaletxean aurkeztutako mozioaren ondotik dator. Senideak-ek "Askatasuna debekaturik duen pertsona orok dagokion zigorra

Garin auzoko San Sebastian eliza eraberritua inauguratu zen abenduaren 13an. Jose Maria Setien Donostiako gotzainak eman zuen meza. Inaugurazioan Gipuzkoako Kultura diputatua den Koruko Aizarna eta Beasaingo alkatea, Jon Jauregi, izan ziren, garindarrekin batera.

Ia bederatzi milioi eta erdiko gastua izan da San Sebastian eliza berritzea. Gotzaitegiak, Udalak, Diputazioak eta hainbat partikularrek emandako diruarekin

bere inguru familiar eta sozialetako espetxean betetzeko

Garingo eliza berritua



konpondu da. Kutzaren eta Euskadiko Kutzaren laguntza ere izan da. Barrualdetik

eta kanpoaldetik konpondu dute eliza. Auzolanean lan asko egin omen da.

eskubidea du" izenburupean aurkeztutako mozioak, Udalbatzak ahobatez onartu zuen. PPko zinegotzia ez zen izan udalbatzan.

Mozioak dioenez, "hau eskubide da eta administrazio publikoen espetze legediaren betekizun bat" da. Mozioan onartutako puntuen arabera, zera eskatzen: gaur egungo legedia gauzatzeari, hau da, zigorrak Euskal Herriko espetxeetan betetzea, zigorraren 3/4ak beteak dituzten euskal presoak eta gaixotasun sendaezinak dituztenak kaleratzea eskatzen da; "Gobernu espainol zein frantsesak ez dituztela entzun instituzio euskaldunek eta euskal hiritar gehienek luzatutako eskakizunak entzun" salatu du; horrekin batera, Gasteizko Legebiltzarrak eta Iruñako Parlamentuak mozioan aipatzen diren puntuak gauza daitezkeen bere ahaleginak areago-

tu ditzatela eskatzen da; eta abenduaren 31rako deituko diren manifestazio ixiletan udalaren partaidetza ziurtatzen du mozioak.

Urtarrilaren 3an, Beasaingo Ikastolaren karpan arratsaldeko 4,30etan, enkartelada izango da, aldarrikapen berarekin.

Ikasle onenaren sariak

Kutxak urtero unibertsitateko espedienterik onenei ematen dieten sarietan, bi beasaingar daude: Amaia Olano, Eskoriatzan Magisterio ikasi duena, eta Montse-rrat Auzmendi, Zuzenbidea bukatu duena.

San Silbestreren 25. urteurrena

Beti Bizi elkarteak abenduaren 31n antolatzen duen San Silbestre krosak 25 urte beteko ditu aurten. Eguerdiko 12etan hasiko da proba.



Besaingo Ikastolaren festa azken txanpan

Abenduaren 18an inauguratu zen Beasaingo Ikastola 'Eguberriz: hitza bihotzari eta euskara bizitzari' lemapean egiten ari den egitarau sorta. Inaugurazio ekitaldian, Jose Mari Agirre Kultura Sailburuordea, Jon Jauregi alkatea eta Udaleko 6 zinegotzi izan ziren, beste hainbat gonbidaturen artean. Ekitaldi asko burutu dira dagoeneko, eta antolatzaileek adierazi digutenez, arrakasta osoz ari dira ospatzen. Aurrera begira dauden ekitaldirik nagusienak hauek dira: urtarrilaren 1ean, Benito Lertxundi eta Antton Valverderen kontzertua, urtarrilaren 2an komunikabideen azoka eta bertso jaialdi berezia eta urtarrilaren 3an, herri kirol saio berezia.

ÑAÑARRI
taberna

Urte Berri on!

Kale Nagusia, 1 ☎ 943 88 06 59
BEASAIN



ETXEBE
TABERNA

*Gabon zoriontsuak eta
Urte 'Berri on!'*

Zaldizurreta Kalea
BEASAIN



Segurako ikastolako lehenengo promozioak

1967ko abenduaren 24an, kantu-eskean ibili ondoren herriko plazan ateratako argazkia.

Goian ezkerretik eskubira: Iñaki Auzmendi, Anjel Ugalde, Bixente Albisu, Joseba Telleria, Maixabel Telleria, Juantxo Ugalde, Juan Mari Imaz, Ramon Mari Albaittero zenanekoa eta Rafael Larrea.

Behean ezkerretik eskubira: Aitor Gabilondo, neska beasaingar bat, Juan Luis Ormazabal, Mertxe Larrea, Jexux Aldanondo, Begoña Ormazabal, Mikel Izagirre eta Miren Aranburu.

ORLEGI  **ORDIZIA**

JA! ON BATZUK OSPATU

Urte Berri on!



ESKAILU TABERNA

Arteaga, 1
ORDIZIA



BAREA TABERNA

Zaldizurreta z/g ☎ 943 16 19 51
BEASAIN


sugar

PUB



Zoionak eta Urte Berri on!

Elkano, 11
ORDIZIA



Taberna SARRIN

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Etxezarreta Kalea
ORDIZIA

KiTTó


EDARITEGIA

Iturralde, 1 **BEASAIN**



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON GUZTIOI!



Zaldizurreta BEASAIN



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)



SASIETA MANKOMUNITATEtik
eskerrak eman nahi dizkizuegu goierritar guztioi,
1998an antolatu ditugun ekintza eta bilketa berriei
emandako harrera onarengatik.



EGUBERRI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

Aurten BAL

Honakoak dira gure eskaintzak:

Bestelako zerbitzuak

- Gorputz tratamenduko aretoa
- Masaia
- Mediku azterketak
- Solarium
- hidro masaia
- Ikus-entzuneke aretoa. Batzar aretoa
- Kafetegia
- Kiroletako denda

